

JAI BATZORDEA

1.BILERA

Data: 2023-06-11

Ordua: 17:30

Lekua: Bilera gela

Partaideak: Monica, Sua, Garazi, Iker A., Emma, Iker M., Nerea eta Nagore.

1. Azken urteko balorazioak+ kontuan izatekoak (aurreko aktan zehaztuta)

2. Aurrekontua

Aurtengo aurrekontua 20.000€takoa izango da.

2025erako programazio proposamena:

IRAILAK 18, OSTEGUNA

16:30 HAUR TAILERRA

18:30 MAHAI JOKOAK ETA ASKARIA JUBILATUETAN

IRAILAK 19, OSTIRALA, KUADRILA EGUNA

16:30 ZINTA KARRERA eta ASKARIA

18:00 PREGOIA eta IJITTO JAITSIERA

Ondoren BURUHANDIAK

18:30 DERBY FUTBOL PARTIDA ARAMA- ITSASONDO

Irizpideak:

15 urtetik gora, talde mistoak (denbora guztian mistoak izan behar dira), 5 laguneko taldeak, 20 minutuko bi parte, aldaketak egitea libre.

21:00 HERRI AFARIA

Larrea Katering 25€/30€/35€ aurrekonturekin menuak eskatu. (Nerea) Zerbitzariekin eta gabe.

Haurrak (12 urte arte) Makarroiak eta xolomoa.

Intolerantzietako menuak ere galdetu.

23:30 KONTZERTUAK

Kaleko Urdangak (2000€) teknikoa beraiek ekarriko dute.

Printzipioz musika ekipoa Itsasondokoa erabiliko dugu, Urko (Ordizirock) osatuko dugu. (Iker A. gelditu da Urkorekin hitz egitekotan)

Proposamenak:

- Rebel Noise (700€)
- Nafarroa 1512 (ezin dute)
- Sustrai berriak
- Iheskide (utzita)

- La Txama: 5000€+BEZ+ afaria+ edariak

01:00 DJa

Malakias (ezin du)

DJ Bull- 500€

Jotatxo (ezin du)

DJ Fulana

Goizaldera BATXURI eta TXOKOLATE JANA

IRAILAK 20, LARUNBATA, MOZORRO EGUNA, Gaia: "librea"

9:00 GOIZ ERESIA Aitor Garmendiarekin egon (Nerea)

12:00 BEITIAKO IGOERA Iñaki Telleriarekin egon (Nerea)

14:30 PAELLA JANA

Paella jana 7€ balioko du, 2€ pertsonako emango zaizkio gazteei plateren garbiketarik. Kuadrilek platerak eraman elkartera?

TARTE HONETAN ZER? (guraso elkarteak proposamen ezberdinak aztertuko dute)

19:00 IJITTO SHOW ETA MOZORROEN DIPLOMA BANAKETA

Mara, Noa etab. Prest daude aurkezpen lanak egiteko.

20:30 HANBURGESA JANA

22:00 MUXUTRUK ERROMERIA 2843,5€+ afaria

01:00 "POTTOKIS"

IRAILAK 21, IGANDEA

9:00 GOIZ ERESIA

11:00-13:00 PUZGARRIAK FRONTOIAN

12:00 HAMAIKETAKOA

15:00-17:00 PUZGARRIAK

18:00 HERRIKO PELOTARIEN PELOTA PARTIDA ETA FRONTENIS
TXAPELKETAKO FINALA

Haur pilotariek aurrez izena eman dezatela.

Frontenisekoei ere saria eman. Talde mistoak. Izen ematean talde mistoa bezala izena eman edo indibidualki eta gero osatu talde mistoak. Izen ematea jada martxan jartzea komeni da,.

19:30 IJITTO IGOERA

20:00 SAGARDO DASTAKETA.

3. Hurrengo bilera

Uztailaren 9an, 17:30ean

- Aurrekontuaren egoera
- Programazioa itxi

2026ko festetarako urtarrilean lehen jai batzordea egitea proposatu da, taldeak etab. erabakitzeko. Beste aukera bat izan liteke urriko balorazioan jada taldeen proposamenak jaso eta lotuta utzi jada. Urtetik urtera lotzen baitituzte taldeek emanaldiak.

Zehaztu urriko balorazio bileran proposamenak jasoko ditugun edo ez.